

Banku negozio tipikoaren bilakaerak % 30 igoarazi du etekina

Kutxabankek 163,2 milioi euroko emaitza lortu du lehen seihilekoan

- **Inbertsio funtsen merkatuan harpidetza garbi handienak dituen hirugarren Taldea izaten jarraitzen du, eta lehena izan zen ekainean, hegazkortasun handiko ingurune batean**
- **Kreditu-inbertsio produktiboa % 5 inguru hazi da, enpresen negozioetan bilakaera nabarmena izan ostean, fakturazioa produktu guztietan hazi baita**
- **Aseguru-jarduerak gora egiten jarraitu du, ekainera arte 89,7 milioi euroko ekarpena egin dio emaitzen kontuari**
- **Kreditu eta higiezinaren narriadura estaltzeko zuhurtasun handienaren irizpideak izan ditu berriro, eta Bankuak 113,2 milioi euro bideratu ditu hornidurretara**
- **Berankortasun-tasak hobetzen jarraitu du % 1,38ra jaitsi arte, alor osoko txikiena. Zalantzazko aktiboen bolumena guztira 711 milioi eurokoa da**
- **Kudeaketa adierazle nagusietan ezarritako helburuak bete ditu. % 17ko CET1 kaudimen-tasa du eta % 48,5eko eraginkortasuna**

2022ko uztailaren 28an. Kutxabank Taldeak **163,2 milioi** euroko irabazi garbiarekin itxi du 2022ko lehen seihilekoa, 2021ean baino **% 30** handiagoa.

Emaitza Ukrainako gerrak eta ingurune makroekonomikoak baldintzatutako testuinguruan lortu da. Ondorioz, hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak zuzendu egin behar izan dira, energiaren hornikuntzari buruzko ziurgabetasuna handia izanik.

Inflazioak maila historikoetaraino hazten jarraitu du, eta neurri publikoek ez dute bilatutako konponbiderik ekarri. Ondorioz, finantza-merkatuetan hegazkortasun handia eta ezegonkortasuna dira nagusi, eta kudeatutako aktiboen balioa hondatzen joan da.

Testuinguru korapilatsu honetan, Kutxabanke bere emaitzen bilakaera banku-negozioaren oinarritzko sarreretan oinarritu du, hau da, **zerbitzuek, kudeatutako aktiboe**k eta **aseguruek** sortutako sarreretan, **% 9,7** hazi baitira. Gainera, interesen marjina ere aipatzekoa izan da, 6 urte negatiboan igaro ondoren tipoak apurka-apurka normalizatzen hasi baitira, COAP batzordearen kokapen estrategikoa aintzat izanik. Joera horren barruan, **gordailu-zerbitzuaren interes-tasa**, hau da, kreditu-erakundeek EBZri beren likidezia gordetzeagatik ordaintzen zioten tasa, % 0,5etik **% 0**ra pasa da.

Horrela, zerbitzuek, balantzetik kanpoko baliabideek eta aseguruak sortutako diru-sarrerek emaitzen kontuan interes-marjinak egiten duen ekarpena gainditzen jarraitzen dute, banku-negozio osoaren **% 53** osatzen baitute.

Urteko lehen seihilekoan, **aseguru-negozioaren bilakaera** nabarmendu da, beste behin ere, **89,7 milioi** euroko ekarpena egin baitio emaitzen kontuari. Aseguru-jarduera guztietan ona izan da seihilekoa, hala nola **bizi-aseguruetan % 10**eko hazkundera izan du, eta **% 17**koa enpresek kontratatutako **arriku anitzeko** aseguruetan.

Lehia bizia izan arren, Kutxabankek merkatu-kuotak finkatu ditu **balantzetik kanpoko** baliabideetan, eta oinarritzko banku-produktuetan, hala nola **hipoteka-maileguetan eta kreditu pertsonaletan**.

Negozioaren bilakaera positiboaz gain, **eraginkortasuna % 48,5eraino hobetu** da, eta kostuei eusten jarraitu da, ustiapen gastuak **% 2,3** hazi baitira, KPIaren eta Erakundearen beraren aurreikuspenen azpitik. Merkatuan nagusi den ziurgabetasuna kontuan hartuta, kredituak eta higiezinak **babesteko hornidura** handiak egiten jarraitu du, atal honetara **113,2 milioi** euro bideratuta.

Sarean aritzera gero eta ohituago dauden bezeroen profilaren haritik, zerbitzu honekin bate egin duten erabiltzaileen kopuruak hazten jarraitu du, eta dagoeneko **bezero guztien % 60 digitalak** dira. Gero eta produktu edo zerbitzu gehiago kontratatzen da kanal digitalen bidez, eta **salmenta digital guztien % 42** biltzen du dagoeneko.


Administratutako baliabideak % 1,5 hazi dira

Kutxabankek administratutako bezeroen baliabideak **73.248** milioi eurora iritsi dira ekainaren amaieran, eta horrek **% 1,5**eko aurrerapena esan nahi du aurreko urtearen aldean.

Aldakortasuna eta ziurgabetasuna nagusi diren une hauetan, Kutxabanken aurrezki eta inbertsio eremuan jarritako konfiantza berretsi dute merkatuak eta bezeroek, harpidetza garbi gehien izan dituen **hirugarren erakundea** izaten jarraitu baitu **–ekainean lehen erakundea–**, guztira **1.368 milioi** euroekin, hau da, merkatuan sartu diren harpidetza garbi guztien **% 22,5**ekin.

Datu horiek agerian uzten dute Kutxabank Taldearen epe luzeko aurrezkiaren jardun historiko ona **ziurgabetasun-aldietan**. Bezeroei **laguntzeko estrategia sendoa** Erakundearekiko konfiantza-maila handiagoan ikusten da, eta, ondorioz, inbertsio-funtsetan duen merkatu-kuotaren bilakaera hobean.

Inbertsio-fondoen merkatuko bilakaera (%)



Kutxabank Taldeak 21.000 milioi euro inguru kudeatzen ditu gaur egun inbertsio-funtsetan. Merkatu-ingurunea eta aldakortasun handia gorabehera, bere merkatu-kuota igotzen jarraitu du, % **6,9**raino.

Kreditu-inbertsio produktiboak goranzko joerari eutsi dio

Kutxabanken **Handizkako Banka**, Banka Instituzionalak eta Enpresetarako Bankak osatua, % **10,2** hazi da, eta, neurri handi batean, kreditu-inbertsio produktiboa bultzatu du: **47.700 milioi** eurora iritsi da, hau da, % **4,8**ko hazkundea izan du.

Xehekako Bankan, **hipoteka-mailegu** berrien errubrikak **2.189 milioi** euroraino egin du aurrera 2022ko lehen erdian. Sare horrek bere jarduera komertzialaren bilakaera onari eutsi dio ingurune ikaragarri lehiakorrean, eta bere hipoteka-kuotak merkatu-kuota naturalen gainetik mantentzea lortu du.

Kontsumorako mailegu berrien kontratazioa **269 milioi** eurora iritsi da seihilekoan, hau da, % **9,2** hobetu da 2021ekoaren aldean, % 6,3ko aurrerapenarekin **Saltegi Kredituan**.

2022. urte osoan zehar, **Kutxabanke** **jasangarritasun irizpideak** dituen negozio eredua sustatzen jarraitu du, hau da, ekonomian, gizartean eta ingurumenean bere eragin edo inpaktu positiboa maximizatzeko gai izango dena. Urteko lehen sei hilabeteetan finantzataldeak **1.150 milioi eurotik gora**, % **2,3** gehiago, bideratu ditu **finantzaketa jasangarrira**, karbono gutxiko ekonomiarantz trantsizioa bultzatzen duten ekimenak babesteko helburuarekin.

Beste hiruhileko sendoa enpresatako negozioerako

Merkatuaren ingurune korapilatsua gorabehera, Kutxabanke enpresa bezeroen finantzaketa-beharrei erantzun die, eta finantzaketa-saldoa % **7,2** hazi da aurreko ekitaldiaren aldean, **7.900 milioi** eurotik gora.

Hiruhileko ona izan da negozio-arlo honetan, **aktibo finkoaren** fakturazioan markak hautsi dituzten hazkundeak izan baititu: **% 50** hazi da eta **197 milioi** eurora iritsi da.

Bestalde, **aktibo zirkulatzaillearen** finantzaketa-eragiketen, enpresa-negozioaren bilakaerarekin zuzenean lotutakoen, saldoa **% 29** hazi da, **% 32 deskontu komertziala**, eta **% 16 kanpo-merkataritzako** eragiketen fakturazioa.

Aseguruen ekarpena % 12 handiagoa izan da

Kutxabank Segurosek jarduera komertzial handia izan du urtean zehar, **70.000 poliza berri** baino gehiago banatuta.

Negozio berriaren hazkundera aseguru-katalogoko produktu guztietan ikus daiteke, baina bereziki aipagarria izan da Aldi Baterako Bizi Aseguruaren arloan, % 10eko igoerarekin iazko ekainarekin alderatuta, eta ekoizpen konbinatua kontsumo-maileguekin % 7 hazi da.

Seihilekoan hainbat informazio-kanpaina egin dira, bezeroentzako abantaila garrantzitsuak integratu dituztenak, batez ere etxebizitza- eta auto-aseguruen esparruetan.

Kutxabank Segurosen poliza-stocka **936.000tik** gorakoa da, eta jarduera horrek guztira **89,7 milioi** euroko diru-sarrerak ekarri ditu Taldearen emaitza-kontura, **% 11,9** gehiago, alegia.

Sektore osoko berankortasunik onena

Kutxabank Taldeak **zalantzazko aktibo**en saldoa **230 milioi** euro baino gehiago murrizten jarraitu du 2022ko lehen erdian, eta horri aktibo problematikoen zorro baten salmentak lagundu dio.

Kutxabankekin finantza-sektore osoko **berankortasun-ratiorik onena** du gaur egun. Sei hilabetean **oinarrizko 48 puntu** hobetu ondoren, **% 1,38an** kokatu da, inoizko berankortasun-tasarik txikiena, batik bat alorrarekin alderatuta, % 4,18koa baitzen maiatzean.

COVID neurriek ukituriko zorroei dagokienez, Kutxabankekin finantza-sektoreko berankortasun-tasa aipagarrienetakoa du: **% 3,9** luzamendu-zorroaren kasuan eta **% 0,9** abalaturako finantzaketaren kasuan, bi kasuetan sektorearen batez bestekoaren oso azpitik.

Emaitzen kontua

Marjina nagusi guztiek izan duten bilakaera positiboak Kutxabanken negozio ereduaren sendotasuna erakusten du.

Banku negozioaren 'core' diru-sarrerek % 5,6ko hazkundera izan dute, guztira 596 milioi euro, batez ere zerbitzuen eta aseguru-jardueraren diru-sarrerek bultzatuta, % 9,7 hazi baitira.

Interes Marjina ere hazi egin da eta 280 milioi eurora hurbildu da, izan baino % 1,4 gehiago.

Datu horiek erakusten du gaur egun bankuaren negozio nagusiaren % 53 zerbitzuen eta aseguruaren sarreren ekarpenetik datorrela, interes-marjinaren ekarpena gaindituz. Gainera, Erakundeak dituen funtzionamendu gastu guztiak % 105ean estaltzen dituzte.

Enpresa partaidetuen zorroaren ekarpen errepikakorra, batez ere dibidenduen ordainketaren bidez eta kidetzako ekarpenaren bidez, **58,5 milioi** eurora iritsi da.

Ondorioz, **Marjina Gordina 622 milioi** eurotik gorakoa izan da, 2021eko lehen seihilekoan baino % 8,4 gehiago.

Kutxabanke bere eraginkortasuna hobetzeko eta **administrazio gastuak** murrizteko **ahalegin garrantzitsua** egiten jarraitu du, hornidurak indartzen jarraitzez gain.

Ustiapen gastuak % 2,3 hazi dira, eta **Ustiapen Marjina 321 milioi** eurokoa izan da, % **14,9** handiagoa.

Gastuen bilakaera onak eta diru-sarrera errepikakorren sorrera sendoak, seihileko honetako **eraginkortasun ratioa** % 50etik behera kokatu du, zehazki, % **48,5ean**, Espainian diru-sarrerak sortzen dituzten erakundeen artean adierazle onenetakoa.

Taldean ohikoak diren zuhurtzia goreneko irizpideen haritik, eta zalantzazko aktiboen bolumena murriztearekin batera, kreditu-zorroaren eta gainerako aktiboen **hornidura-maila zorrotzari** eutsi zaio, eta **113,2 milioi** euro eman zaizkio atal horri. Horrela, **zalantzazko aktiboen estaldura ratioa % 114,5era** hazi da.

Taldearen **irabazi garbia 163,2 milioi** eurokoa izan da, 2021eko garai berean baino % 30 handiagoa.

Bankuaren kaudimenak beti bezain sendo jarraitu du, eta **CET1 ratioa % 17an** kokatu da

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2022ko ekaina

Miloi euro	2022ko ekaina	%Δ
Interesen Marjina	279,6	1,4
Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerak	316,4	9,7
Banka negozioaren core sarrerak	596,0	5,6
Dibidenduak, baliokidetasunak eta ROF	58,5	69,3
Beste ustiapen emaitzak	-31,8	29,2
Marjina Gordina	622,6	8,4
Ustiapen gastuak	-302,0	2,3
Ustiapen Marjina	320,6	14,9
Saneamenduak eta narriadurak	-113,2	-21,3
Beste irabazi eta galerak	14,7	-52,5
Zergen aurreko emaitza	222,2	33,7
Zergak eta bestelakoak	-59,0	44,8
Taldearen emaitza	163,2	30,0